
URDABURUTARRAK

Testua eta irudiak: ANTHONY BROWNE

Euskarazko itzulpena: KOLDO IZAGIRRE

Cartonéz koadernatua. 21 x 25 cm. 40 orr. 16 €

Urdaburutarrak (euskra) . ISBN 978-84-8464-572-6.

Amets egiteko liburuak.

O libro dos porcos (galegoz). ISBN 978-84-8464-571-9.

Tras os montes.

O livro dos porquinhos (portugesez). ISBN 978-972-8781-45-3.

Livros para sonhar.


Urdaburu jauna Jon eta Josu semeekin bizi zen lorategi polita zeukan etxe polit batean, auto polita gordetzen zuen garaje politarekin. Etxean, emaztea zaukan.

-“Tira, laztana, gosari hori!” errepikatzen zuen goizero bere lan zoragarrira abiatu baino lehen.

-“Tira, ama, gosari hori!” errepikatzen zuten Jonek eta Josuk goizero beren eskola txoragarrira abiatu baino lehen.

Horrelaxe egunero, Urdaburu anderea nazkatu zen arte neskame bat baino okerrago bizitzen. Alde egin zuenean, ohartxo hau utzi zien idatzia: “Urdeburuak!”. Urdaburu jaunak eta bere semeek etxeko lan guztiak egin behar izan zituzten harrezkero: garbitu, otordua prestatu, oheak jantzi, arropa lisatu...

Liburu hau guztiz gomendagarria da irakurleak heziketa berdinzale eta elkarrenganako batean abiatzeko, eta familiaren kontzeptuan sakontzeko. Egilea metafora ikusgarri batez baliatzen da helburua lortzeko: garbiketa eta etxeko arauak zabartzen direnean, protagonistak zerri bihurtzen dira, urde zikinak. Honenbestez, zerriaren irudiak gogoeta eragiten du hitz honen adiera desberdinez: zerria izan edo zerria bezala bizitzea.



-
- **Gaia:** etxeko lanak banatzea.
 - **Adin egokia:** 7 urtetik gora.
 - **Nabarmentzeko modukoak:** irudi errealistak, osagarri surrealisten; elkar-heziketa, berdintasunaren ikastea, mutikeriarik ez, familia arazoak, emakumearen eskubideak.
-

Anthony Browne

(Sheffield, Ingalaterra, 1946)

Leeds College of Art-en egin zituen ikasketak, eta diseinu grafikoan trebatu zen. Gizakia irudikatzeke daukan perfekzio-beharra Manchester-en etorri zitzaion, bertako ospital batean osasun gaien marrazkilari gisa ibili zenean. Geroago hasi zen haurrentzako ipuinak sortzen eta apaintzen, zorian postalak margotzeari ekin zionetik.

Browne-ren estiloan margolari surrealisten eragina atzeman liteke, eta maite ditu gertaldi onirikoak eta osagarri bitxiak. Bere ibilbidean jaso dituen sarien artean Kate Greenaway domina eta Kurt Maschler saria aipa litezke, baina oroz gain nabarmentzekoa da 2.000 urteko Hans Christian Andersen saria, bere obra osoarengatik. Sari hau irabazitako aurreragoko britaniarrak 1956an jaso zuen.

Hizkera plastikoarekiko loturak eta ikusi eta irakurtzeko molde berriak saiatu dituzten egile ingelesetan ezagunenetakoa da. Adibide bikainak dira *Gorila*, *Urdaburutarrak* (Kalandrakak argitaratua euskaraz, galegoz eta portugesez), *Aldaketak*, *Tunela*, *Zoologikoa* eta *Willy* saila. Kritikok diote Browne-ren lanak lotura kultural eta artistikoz beteriko mudua sortzen duela, testua osatzeko eta interpretatzeko irakurlearen inteligentzia zorrotzen dituzten arrasto eta gako bisualak eskaintzen dituela, adina kontuan hartu gabe.